

FUNTSEZKO JARDUERAK

Guk egingo ditugun funtsezko jarduerak beharrezkoak dira balorezko proposamena garatzeko, berezko potentzialarengana iristeko, bezeroarekiko harreman eraginkorrak eraikitze eta diru sarrerak lortzeko. Ondorioz, funtsezko jarduerak aztertu ondoren hurrengo erabaki dugu.

Hasteko, produkzioari dagokionez, bizikleten eta parkinen diseinua G&G Vehiculos Cero Emisiones enpresak egingo du, bi enpresen artean hitzartutako elkarrearen ondoren. Bestalde, kantitate jakin batzuetan produktua ere egingo dute. Guk aldiz, kalitate estandarra bermatuko dugu, hau da, egiten diren produktuak gure baldintzak bete eta gure nahien barruan daudela.

Beste alde batetik, agertzen diren arazoak konpontzeko bizikleten mantenuaz eta elektrizitateaz arduratzen diren enpresekin jarriko gara harremanetan. Enpresa hauek ezagutzaren gestiotan oinarrituta egongo dira, hots, arazoarekiko adituak izango dira. Gainera, etengabeko prestakuntza izango dugu, uneoro hobetu eta gure bezeroei kalitate hobea eskaini ahal izateko.

Plataformako edo sareko jarduerari dagokionez, gure enpresarentzat arlo informatikoak garrantzi handia du hori baita bezeroekiko gure harremanaren iturri. Webgunearen gestioa eta etengabeko mantenua aditua den beste enpresa batek egingo du. Baina plataforma digitala aldiz, guk promozionatuko dugu.

Beraz, gure jarduera nagusia identifikatu dugun arazoari irtenbide bat emateko zerbitzu bat eskaintzea da, gure bizikleta sareari esker Oarsoaldeko herri barnetan nahiz herri artean dagoen komunikazio falta hobetuko dugu. Horretarako, behar ditugun hainbat gauza (bizikletak, parkinak...) erosiko ditugu, ez dugu ekoizpenik egingo, nahiz eta enpresekin batera diseinatuko ditugun behar ditugun produktu horiek.